

# Parlamentua edo Nafarroako Gorteak





# Parlamentua edo Nafarroako Gorteak

**HISTORIA**

# NAFARROAKO GORTEAK

**N**

AFARROAKO GORTEEN JATORRIA ERREGE KURIAN, HALINDIKI ETA ELIZ KARGU NAGUSIEN KONTSEILUAN, BILATU BEHAR DA. KONTSELU HONEK AHOLKATZEN ZUEN GARRANTZIZKO ARAZO MOTA GUZTIAN...



KONTSEILU HORI ERDI AROKO LEHENENGO MENDEETAN ESPAINIAKO KRISTAU ERREINU GUZTIEK ZELUKATEN ERAKUNDE BAT ZEN.



XIII. MENDEAN ZEHAR, KURIAK (CORT ERROMANTZEZ) ALDAKETA GARRANTZITSUAK JASAN ZITUIEN CORT GENERAL EDO GORTEAK SORTARAZIZ.



NAFARROAN SORTUTAKO HIRIAK, FORU KONTZESIOAREN BITARTEZ (XI. MENDEAREN GEROZTIK) HARTU ZUTEN GARRANTZIAZ KONTURATURIK, ERREGEK HIRI HORIETAKO ORDEZKARIAK CORTEN BILERETARA DEITU ZITUZTEN.



HIRUGARREN TALDE HONEK JUSTIFIKATU ZUEN BILERA BERRI HAUEK CORTI GENERAK DEITZEA AURREKOETATIK; TXIKIAGOAK ZIRENEZ, BEREIZ ZITEZEN...



... GAINERA HIRU TALDE HAUETAKO BATZARKIDEAK ERREINUAREN ORDEZKARIEN IZAERA HARTZEN HASI ZIREN ERREGEREN AIRREAN.





KORREGATIK, ESAN DAITEKE XIV. ETA XV. MENDEETAKO GORTEAK HIRU TALDEZ OSATURIK ZEUDELA, BESOAK DEITUTAKOAK

ELIZGIZATERIA BESOAK


NOBLEZIA BESOAK

UNIBERTSITATE BESOAK



HIRU BESOTAKO BANAKETA HAU, GARAI HARTAKO GIZARTEAREN HIRU TALDE NAGUSI EI DAGOKIE, HOTS, ELIZGIZATERIARI, NOBLEZIA GERLARIARI ETA HERRIARI.

**ELIZGIZATERIA BESOAK** IRUÑEKO APEZPIKUAK BURUTZEN ZUEN ETA BESTE GOTZAIK, MONASTEGI NAGUSIETAKO (LEIRE, LA OLIVA, IRANTZU, FITERO, ETAB...) ABADEEK ETA BESTE ELIZGIZON GARRANTZITSUREN BATEK (ADIB. ORREAGAKO PRIOREAK) OSATZEN ZUTEN.



**NOBLEZIA BESOA** NOBLEZIAREN GOI MAILAKO PARTAIDE BATZUK OSATZEN ZUTEN.



HAUEI GERDAGO BESTE BATZU ERANSTEN JOAN ZITZAIZKIEN, HAIN GOI MAILAKOAK EZ IZAN ARREN, ERREGERENGANDIK BILERETARA JOATEKO ESKUBIDEA LORTU ZUTENAK.



**UNIBERTSITATE BESOAN** HAUEK ZEUDEN:

IRUÑEA



LIZARRA



TUTERA



ZANGOZA



ERRIBERRI



LOS ARKOS



ORREAGAÑO BURGOA



DONIBANE GARAZI



ETA BESTEAK...



HAUEN KOPURUA XVIII. MENDEAN 380 RAINO GEHTU ZELARIK.



**E**NBORA PASATU AHALA, GORTAK BOTEREA BEREGANATZEN JOAN ZIREN.



ERREGEK ZERGAZ GEHTU NAHI ZITUEN, BAINA HARTARAKO GORTEN BAIME NA BEHAR ZUEN.




ETA HAUEK, HALABER, ERREGERI ESKUBIDEAK ETA KONTZESIOAK EXIGITZEN ZIZKIOTEN.



HORRELA NOLABAITTEKO OREKA SORTU ZEN ELKARREKIKO AMOREMATEETAN OINARRITUTAKOA.



1512an NAFARROA GAZTELAKIN BATU ZENEAN, GORTEEN PROTAGONISMOA GEHITU EGIN ZEN NAFARROAKO ERREINUAREN ORDEZKARITZA HARTU ZUTELARIK BATIPAT.



GORTEETAKO BILERAK BAKANTZEN HASI ZIRENEZ, BEHARREZKOA IKUSI ZEN ORDEZKO BAZORDE BAT IZENDATZEA, GORTEAK BILDIAK EZ ZEUDEN TARTETAN, NAFARROAKO FORUAK ETA ESKUBIDEAK ZAIN ZITZAN,



ASKOTAN SAIATU ONDOREN, DIPUTAZIOA BEHIN BETIKO ERATU ZEN, GORTEEK HALA ERABAKI ETA, 1576ko APIRIAREN 26an



XVIII. MENDEAN, ERREGEEK 10 ALDIZ BAKARRIK DEITU ZITUZTEN GORTEAK. NAFARROAKO AZKENEKO GORTEAK 1828-1829AN BILDI ZIREN.



LIBERALISMOAREN IDEOLOGI POLITIKOA ESPAINIAN SARTZEAZ BATERA, NAFARROAKO GORTEAK DESAGERTU ZIREN...



... SISTEMA POLITIKO BERRI HONEK EZINBESTEKO BALDINTZA ESKATZEN ZUEN, HOTS, PARLAMENTU BAKAR BATEK LEGISLATU BEHAR ZUELA ESPAINIA OSOA.



1841eko ABUZTUAREN 16ko HITZARMENEZKO LEGEAREKIN NAFARROAK BERE GORTEAK GALDU ZITUEN.



NAHIZ ETA, BESTALDE, DIPUTAZIOAREN BOTEREA INDARTZEA LORTU...



... ETA ORDUZ GEROZTIK, BERRA IZAN FORUEI EUSTEKO ERAKUNDE BAKARRA



1978ko KONSTITUZIOAK IKUSPEGIA ALDATU DU NAZIOAREN GORTE OROKORREN ETA PARLAMENTU ERREGIONALEN IZATEA BAIMENTZERAKOAN. HONEK NAFARROAKO PARLAMENTUA EDO NAFARROAKO GORTEAK ERE DEITU DAITEKEENAREN SORRERA BAIMENDU DU. ERREGEEEK EDO GOBERNU ZENTRALAK EGIN ZITZAKETEN GEHEGIKERIEN AURKA NAFARROAKO ESKUBIDE ETA FORUEN ORDEZKAPENERAKO ETA DEFEN TSARAKO XIII. MENDEAZ GEROZTIK IZANDAKO ERAKUNDE BAT, BIRSORTU DA HORRELA.

# PARLAMENTUA

edo Nafarroako Gorteak



NAFARROAKO FORU ERAEN-  
TZAREN BIRREKAZPEN ETA  
HOBEAGOTZEAREN LEGE ORGANIKOA  
1982KO ABUZTUAREN 16AN SARTU  
ZEN INDARREAN,

1982KO  
ABUZTUAK, 16

OINARRIZKO LEGE HONEK NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN ERAKUNDE  
HAUEK ARAZITZEN DITU:




- PARLAMENTUA EDO NAFARROAKO GORTEAK
- GOBERNUA EDO FORU DIPUTAZIOA
- NAFARROAKO GOBERNUA EDO FORU DIPUTAZIOAREN LEHENDAKARIA

## PARLAMENTUAK

NAFARROAKO HERRIA ORDEZKATZEN DU,  
BERORREK HAUTATU BAIT DU.



BOZKERA UNIBERTSAL,  
LIBRE, BERDIN, ZUZEN  
ETA ISILPEKOREN BIDEZ



4 URTEAKO  
EPERAKO

4  
urte

NAFARROAKO LURRALDE  
OSOAN.





**N**AFARROA FORU KOMUNITATE BAT DA.



NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN LURRALDEA, LEGE HAU PROMULGATZEN DEN UNEAN, IRUÑEA, LIZARRA, TUTERA, ZANGOZA ETA ERRIBERRIKO MERINALDE HISTORIKOEN BARRUAN DAUDEN UDALERRIEK OSATZEN DUTE.


NAFARROAKO EZKUTUA, URREZKO KATEEZ OSATURIK DAGO, HONDO GORRI GAINEAN, ESMERALDA BAT ERDIAN, BERONEN KATE MAILAZKO ZORTZI BESOEN ELKARGUNE GISA, ETA HAIEN GAINEAN ERREGE KOROA, NAFARROAKO AINTZINAKO ERREINHAREN SINBOLOA.


NAFARROAKO BANDERA GORRIA DA, ERDIAN EZKUTUA DUELARIK.

NAFARROAKO HIRIBURUA IRUÑEKO HIRIA DA.

GAZTELERA DA NAFARROAKO HIZKUNTZA OFIZIALA. EUSKARAK ERE HIZKUNTZA OFIZIAL-MAILA IZANGO DU, FORU LEGE BATEK ZEHAZTUKO DITUEN, NAFARROAKO ESKUALDE EUSKALDUNETAN.







**NAFARROAKO PARLAMENTUA**